

50. zenbakia ~ 2017-07-28

2017ko BATZAR NAGUSIA

Bilbon ospatu zen 2017ko ekainaren 11ean



feuseelkartea@gmail.com

www.feuse.eus

2017/50

Farmaberri
FARMAZIALARI EUSKALDUNEN ELKARTEA



Ekainaren 11ean, igandea, Bilbon kokatzen den Bizkaiko Sendagaigileen Elkartearen biltzeko deia jaso genuen FEUSEko kideok. 12ak aldera ohiko Batzar Nagusiari hasiera eman genion.

Lehenik, 2016ko kontuak aurkeztu eta datorren urtekoak onartu genituen. Ondoren, azken urtean egindako ekimenen laburpena puntuz-puntu ikusi genituen. Hona hemen laburpena:

- * Elkargokideen egoera
- * Kideen datuak eguneratzea
- * Txantxagorri pertsonalizatua.
- * Farmaberri aldizkaria: 4 argitaratu dira denak elektronikoki.
- * Boletín elektronikoa: 3 bidaldu dira elektronikoki.
- * Web gune berria.
- * Testu laburren saria

Behin urtean egindako lana aurkeztu ondoren hurrengo urteko proposamenak eztabaidatu genituen. FEUSEk aipatu ziren guztiak balioztatuko ditu eta abian jartzen saiatuko da datorren hilabeteetan.

Azkenik, Amaia Garitano eta Amaia Maletek Testu Laburren lehenengo saria jaso zuten eta bestalde, Francisco Javier de Ojangurenak bigarrena. Datorren Farmaberrietan argitaratuko dira testuak. Eskaera eta galderen ondoren bukatutzat eman genuen Batzar Orokorra.

Ondoren, Bilboko jatetxe batean bazkaldu genuen eta bazkalostean paseo bat eman eta gero, udazkenean egingo den txangora arte agurtu ginen.

FEUSEKO KIDEAK UDAZKENEKO TXANGORAKO GONBITEA

EGITEN DIZUGU

Urrian, Elgetako Intxorta mendira txangoa

Udazkenean FEUSEko kideok txango bat antolatuko dugu Elgetara (Gipuzkoa).

1936-37ko guda edo Gerra Zibila delakoan



Elgetako Intxorta mendiaren magalean izandako erresistentziaren hainbat xehetasun ezagutzeko eta memoria historikoaren berreskuratzeari buruz hausnartzeko aukera izango dugu.

Izena emateko epea irekia dago beraz ez galdu aukera eta idatziguzu feuseelkartea@gmail.com helbidera zure izena eman ez eta denori ondo datorkigun data aukeratuko dugu.

ELGORRIERRALDIAK EUROAPAN. OSASUN PUBLIKOAREN GOMENDIOAK

2016ko urtarriletik 14.000 kasu baino gehiago izan dira Europan

Elgorria kutsatzen den gaitza da, oso erraz. Inkubatze aldia 10 bat egunekoa da (7tik 18rako maila), eta eraginpeko biztanlerietan agerraldi handiak izaten ditu.

Espanian, uztailak 9 arte, egiaztatutako 138 elgorri kasu erregistratu dira (horietatik 45 Nafarroan). Euskadin, ez da kasurik izan 2012. urtetik, eta erregistratutako azken kasuak txertatu gabeko haur biztanlerian edo 40 urtez beheko gazte helduetan gertatu ziren. Euskal biztanleria gehiena inmunitate naturalez (50 urtetik gora) edo inmunitate aktiboz (1981 ondoren jaiotako pertsonak) babestuta dago.

Hala ere, profesional sanitario ugari ez du gaitz honen klinikaren eta agerpenaren berri, **baina elgorriak badu OMEren Ezabatze Plan bat, eta presaz deklaratu behar da, protokolo bereziak berehala aktibatzen diren.** Horregatik, Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzak profesional sanitarioei gomendatzen die:

- Balizko elgorri kasuen susmo diagnostikoa areagotu eta kasu susmagarriak EAEko Zaintza Epidemiologikoaren Unitateei berehala jakinarazi, ingurune sanitarioan barne ez dadin batez ere.
- Endemia handiko tokietara bidaiatuz kutsa daitezkeenei txertoa jarri.

BERRI LABURRAK

JARRAIPEN FARMAKOTERAPEUTIKOA

(Amaia Garitano Askasibar eta Amaia Malet Larrea)

2017ko FEUSEren Testu Laburren lehenengo sariaren irabazlea

Arreta Farmazeutikoaren Foroak Jarraipen Farmakoterapeutikoa (JFTa) horrela definitzen du: sendagaiekin erlazionaturiko arazoak (SEA) dektatzea helburutzat duen zerbitzu profesionala da, era honetan sendagaiekin erlazionaturiko emaitza negatiboak (SEN) saihestu eta ebazteko. Zerbitzu honek konpromisoa eskatzen du, eta modu jarrai, sistematizatu eta dokumentatua eman behar da. Pazientearekin eta osasun munduko beste profesionalekin elkarlanean burutuko da, pazientearen bizikaltatea hobetzea ahalbidetzen duten emaitza konkretuak lortzeko.

JFTaren definizioa aztertzerako orduan, sendagaien erabilera egokia bermatzeaz gain, pazientearen osasun emaitzetan farmazialariaren konpromisoa behar dela ondorioztatzen da. Konpromiso honen bitartez, farmazialariak farmakoterapia osasunerako onuragarria izan dadin bere esku dagoen guztia burutzeko erantzukizuna hartzen du. JFTa metodologia edo sistematika konkretua erabiliz burutzen da, eta paziente artatzen duen osasun talde multidisziplinarrean farmazialariaren kolaborazio eta integrazioa eskatzen du.

Sendagaiekin erlazionaturiko arazoak (SEA): medikamentuak erabiltzeko prozesuan gertatzen diren akatsak dira. Ondorioz, sendagaiekin erlazionaturiko emaitza negatiboak (SEN) eragiten dituzte edo eragin ditzakete (1. Taula).

SEAn zerrenda

- | | |
|--|---|
| <ul style="list-style-type: none">• Medikamentuaren administrazio desegokia• Ezaugarri pertsonalak• Kontserbazio desegokia• Kontraindikazioa• Dosi, pauta edo/eta tratamenduaren iraupen desegokia• Bikoiztasuna• Beharrezkoa ez den medikamentua• Dispentsazio akatsak | <ul style="list-style-type: none">• Preskripzio akatsak• Tratamendua ez betetzea• Elkarrekintzak• Tratamenduari eragiten dioten beste osasun-arazoak• Eragin desiragaitzen probabilitatea• Gutxiegi tratatutako osasun-arazoa• Beste batzuk |
|--|---|

1. Taula: Arreta Farmazeutikoaren Foroak proposatutako SEAn sailkapena.

Zerrenda ez da baztertzaila ezta zehatza ere. Hau da, egoera batek hainbat SEA izan ditzake eta gainera, zerrendan ez dauden SEAk gehitu daitezke.

Sendagaiekin erlazionaturiko emaitza negatiboak (SEN): pazienteen osasunean desio ez diren ondorioak dira, farmakoterapiaren helburuekin bat ez datozenak, eta sendagaien erabilerarekin lotura dutenak edo izan dezaketenak; Farmakoterapiak premiazkoa, eraginkorra eta segurua izan behar du. SENak betetzen ez den farmakoterapiaren baldintzaren arabera sailkatzen dira. Hau da, farmakoterapiaren hutsegitearen arabera (2. Taula).

Farmakoterapiaren betebeharrak	Farmakoterapiaren hutsegitearekin erlazionaturiko SENa
Premia	Premiagatiko SENa: pazienteak osasun-arazoa du behar duen botika jasotzen ez duelako
	Premia ezagatiko SENa: pazienteak osasun-arazoa du behar ez duen botika jasotzen duelako
Eraginkortasuna	Eraginkortasun ezagatiko SENa: pazienteak osasun-arazoa du botika eraginkorra ez delako
Segurtasuna	Segurtasun ezagatiko SENa: pazienteak osasun-arazoa du botika segura ez delako

2. Taula: Sendagaiekin erlazionaturiko emaitza negatiboen sailkapena eta definizioa.

SENeN ARRISKUA: SENa agertzeko probabilitatea areagotua dagoen egoerari egiten dio aipamena kontzeptu honek. Hau da, emaitza negatibo baten agerpena ahalbidetzen duen elementuren bat (SEA) identifikatzen da baina ondorioa oraindik ez da adierazi. SEA bat dagoen guztietan eta SENa adierazi ez bada, beti egongo da SEN arriskua.

Jarraipen Farmakoterapeutikoaren helburuak:

Jarraipen Farmakoterapeutikoaren helburuak ondorengoak dira Arreta Farmazeutikoaren Foroaren arabera:


- Sendagaiekin erlazionaturiko arazoak antzematea (SEA), sendagaiekin erlazionaturiko emaitza negatiboak (SEN) saihestu eta ebazteko.
- Tratamenduaren eraginkortasuna eta segurtasuna areagotzea, sendagaien erabilerarekin erlazioa izan dezaketen arriskuak gutxituz.
- Sendagaien erabilera arrazionala bultzatzea, erabilera prozesua hobetuz.
- Pazienteen bizi-kalitatea hobetzea.
- Esku-hartze profesionala erregistratu eta dokumentatzea.

Jarraipen Farmakoterapeutikoaren metodologiaren laburpena

Jarraian laburbilduta deskribatzen den metodologia Jarraipen Farmakoterapeutikoa egiteko Dáder Metodoa da, Granadako Unibertsitateko Arreta Farmazeutikoaren inguruko Ikerketa Taldeak garatua, eta Arreta Farmazeutikoaren Foroak baieztatua [Método Dáder: Guía de Seguimiento Farmacoterapéutico].

Lehenengo pausua pazienteari zerbitzua eskaintzea da. Onartzen badu, farmazialari eta pazientearen arteko lehenengo elkarrizketa hitzartzen da. Pazienteak bere sendagaiak, osasun-txostenak eta analitika berrienak eraman beharko ditu. Elkarrizketan bildutako informazioarekin farmazialariak pazientearen historia klinikoa garatuko du, eta osasun-arazoak eta sendagaiak “pazientearen egoera” izeneko tresnan adieraziko ditu. Ikasketa-fasean osasun-arazo eta sendagaiak aztertu ondoren, farmazialariak farmakoterapia ebaluatuko du, SEAk eta SENak identifikatuz. Antzemandako SEA eta SENen arabera esku-hartze plana garatuko du. Ondorengo ebaluazio eta jarraipen ikustaldietan, interbentzioak egin eta haien emaitzak jasoko ditu, pazientearen momentuko egoeraren arabera interbentzio berriak planifikatu eta garatzen dituen heinean (1. Irudia).

1.Irudia: Jarraipen farmakoterapeutikoaren prozedura



JARRAIPEN FARMAKOTERAPEUTIKOAREN euskarazko gida osoa web gunean aurki daiteke
“Dokumentuak” atalean.

**EDOZEIN IRADOKIZUN EDO ZALANTZ BADUZU HONAKO HELBIDE HOTAN JAR ZAITEZKE
GUREKIN HARREMANETAN: feuseelkartera@gmail.com
ZURE IRITZIA OSO GARRANTZITSUA DA GURETZAT!**

